

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es



Aretxabaleta • 1998ko apirilak 30 • 143. zka.



Futbol harrobia,

lehen Alavesera, orain Errealera

Zatoz gurekin, zatoz Institutura!



AURRE-INSKRIPZIOA

Maiatzaren 4tik 18ra

MATRIKULA

Uztailaren 1etik 10era

BATXILERGO GUZTIAK

- Izadi eta Osasun-Zientzien Batxilergoa.
- Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa.
- Teknologia Batxilergoa.

BIDE IREKIAK

Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak ditugu.

HIZKUNTZAK

Hizkuntzetan eskaintzarik zabalena:

- Ingelesa.
- Alemaniera.
- Frantsesa.
- Italliera.

MODALITATEAK ETA AUKERAKO JAKINTZAGAIAK

Modalitate eta Aukerako jakintzagaiak, besteak beste:

- Errepresentazio-sistemak
- Elektroteknia.
- Jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna.
- Mekanika.
- Psikologia.
- Antropologia.
- Laborategi teknikak.
- Ekonomia eta Enpresa antolaketa.
- ...

ERDI MAILAKO

HEZIKETA ZIKLOAK

- Ibilgailuen elektromekanika.
- Erizaintzako zaintza osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

III. MAILAKO MODULUA

- Sistema automatiko eta Programagarriak.

AURRERANTZEAN EZARRIKO DIREN HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ingurugiro-kimika.
- Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produktzioa.
- Automozioa.

Arrasate
aretxabaleta
INSTITUTUA

ARRASATE: Sta. Teresa, 25 • 20500 ARRASATE • Tel.: 79 83 00 / 79 44 47 • Faxa: 79 44 37 • E-mail: iarrasate@edunet.iber.net.es.
ARETXABALETA: Etxebarri auzoa, z/g • 20550 ARETXABALETA • Tel.: 79 79 00 / 79 79 43 • Faxa: 77 09 55 • E-mail: aretxainsti@jet.es.

Berri gehiagorako




ARRASATE
79 83 00 / 79 44 47

ARETXABALETA
79 79 00 / 79 79 43

Futboleko harrobia mantentzearen aldekoa zara?

Salva Rodriguez
(Langilea)

Hemengo harrobia mantentzea garrantzitsua dela uste dut. Hala ere, kanpoko atzerritarrek taldeari aparteko aportazio bat egiten badiote, ongi etorriak izango dira nire partetik behintzat.



Maria Josefa Garciaetxabe
(Etxekoandrea)

Bai, harrobia zaindu egin behar da. Ahal den neurrian bertakoak izan beharko lirateke jokalariaik. Bestalde, hemengo jokalaririk ez balego orduan ondo dago kanpotik ekartzea.



Alex Marco
(Langilea)

Bai, nahiz eta azkenaldi honetan Errealak kanpotar asko fitxatu dituen. Jokalari atzerritarrak hartzen badira, hauek oso onak izan behar direla uste dut, diferentzia markatzen dutenak. Ordainzen dena ikusita...



Iñigo Berridi
(Ikaslea)

Futbol taldeak bertako jokalariez osatutakoak izatearen aldekoa naiz. Ahal den neurrian harrobia errespetatu behar da.



e s k u t i t z a

Aretxagazeta, atxabaltar guztion aldizkaria ote?

Ostegunean, hilak 2, amaitu zen Kurtzebarri Eskolak antolatutako VI. Antzerki Topaketa. Lau egunetan, bi eta hamasei urte bitarteko ikasle guzti-guztiek hartu dute parte ekintza hauetan. Hainbat guraso eta familiarteko azaldu dira, ikasle hauen lanak ikustera, baita herritar ugari ere, egunero eskolako aretoa txiki geratu arte.

Topaketa hauei publizitate zabala eman zaie: irratia, egunkaria, eta eskolako fatxadan ere kartel izugarria ipini dute. Zein da Atxabaltako aldizkaria? Aretxagazeta ote? Gezurra dirudi, aldizkari hau eskola pare-parean kokatuta dagoela, bertako kazetariak ez baitira azaldu ere egin herriari gai honi buruzko informazioa zabaltzeko. Azken alea ekintzaren bukaerarekin batera kaleratu denez, ez al da una aproposa honetaz jarduteko?

Ikasle eta irakasleek egin duten lana eta jarri duten ilusioa han izan garenok egiaztatu dugu, baina seguru gaude hauek, beraien ahalegina herriko aldizkarian isladatuta geratzea nahi izango zutela.

Beraz, Topaketan geure burua partaide sentitu

izan dugunon partez, geure eskerrik beroenak Aretxagazetako kazetariari.

**BEGOÑA ARENAZA MADINABEITIA ETA
BESTE ATXABALTAR BATZUK.**

Gure erantzuna

Aurreko eskutitzari erantzunez, esan behar dugu, aurreko alean sekula baino notizi gehiago izan genituela aldizkarian jartzeko eta beharbada Kurtzebarriko antzerki asteari ez geniola behar bezalako garrantzia eman. Hala ere, esan behar dugu, eskutitzaren azken esaldia gogor samarra iruditu zaigula.

ARETXAGAZETA

Zuzenketa

Azkenengo alean irailetik aurrera Aretxabaleako komunikabideak-Loramendi Durana kalean dagoen Euskal txokoan kokatuko zela aipatzen zen. Esaldia ez da guztiz zuzena, izan ere, edifizio hori euskaltegia da gaur egun eta ez euskal txokoa.

Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Aretxabaleako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabalea. Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila.
Erredakzio-kontseilua: Iruñe Iturbe, Mirari Altube, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa, Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arrojaibe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada: 2.500 ale.**
Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es.
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aste honetan Udalak eta Ansoalde enpresak zine emanaldiekin zer egin erabakitzekeo batzar bat egingo dute

Momentuz ateak itxita

Urteko denboraldia bukatu aurretik itxi behar izan ditu ateak Zاراia zinematik soinu arazoak egon direlako.

Zineko ekipoa hobetzeko, martxoaren 27an konponketa batzuk egin ziren, horien artean anplifika-

doretan ikutuak eta imagin fokoetan zuzenketak.

Egindako konponketekin soinua eta imagina hobetzea lortu zen. Hala ere, hurrengo astean beste tresna bat hondatu zen.

Cruz Maria Ansoalde zineko

esplotazioa daraman enpresako arduradunaren ustez, kabina konpondu beharko litzateke, baita oinarri berria jarri ere. Ekipoa aspaldikoa dela kontutan izanik, ezinezkoa da gaur egungo aparatuek daukaten soinu ona lortu. Gainera konponketa txikiak egin arren, beti arazoak emango dituela gehitzen du.

Aste honetan Udalak eta Ansoalde enpresak zine emanaldiekin zer egin erabakitzekeo batzar bat egingo dute.

“Titanic” takileroena

Orokorrean filmeak nahiko azkar iritsi dira herrira. Hala ere, hauek izan duten arrakasta ez da hain bikaina izan.

Ansoalde ustekabeak hartu ditu, izen handiko filmeak ikustera ez baita jende asko gerturatu.

“Titanic”, “Siete años en el Tibet” eta “La boda de mi mejor amigo” izan dira filmerik takileroenak.

Euskaltegiak Nafarroa kalean hasiko du ikasturte berria



Gaur egun Nafarroa kalean kokatzen diren taldeen erdiak Murubidera aldatuko dira

Gaur egun Udal Euskaltegia Durana kalean kokatzen bada ere, datorren ikasturtetik aurrera Nafarroa kalean izango du egoitza berria. Aldaketa honen arrazoia, gaur egun Euskaltegia dagoen lekuan Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi eta Loramendi elkarteak kokatuko direna da. Aldaketa honek euskaltegia lokalez aldatu beharra ekarri du eta Udalak Nafarroa kaleko beheko solairua egokituko du horretarako. Egingo diren obrek lokala goitik-behera eraberrituko dute, 3/4a euskaltegiarentzat izango da eta gainontzeko zatia orain artean moduan herriko taldeetzat. Gaur egun talde ugari daude Nafarroa kaleko beheko solairuan: Saretxo, Zاراia M. T., Zikloturistak, Okila taila elkarte, Aratz, Hiruatx... Taldeen erdiak, oraindik ez da zehaztu zeintzuk, Murubideko lokalera aldatuko dira eta gainontzekoek bertan jarraituko dute.

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69

IBARRA

ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA

GUASS-en

Central rock

apirilaren 30ean
gaueko 12etan

Festa izugarria, zatoz!



Elkartearen funtzionamenduan praktikotasuna bilatu asmoz idazkaritza batzordea eta zuzendaritza batzordea egongo dira

Loramendik urteko batzar orokorra egin zuen apirilaren 23an

Hitzarmengintzan burubelarri jardutea da aurtengo helburuetako bat

Iazko aktaren eta ihardueren berri emanez hasi zuen Loramendi elkarteak apirilaren 23an burutu zen batzar orokorra. Elkarteko sailak banan-banan aztertu ziren: kultura, sensibilizazioa, Tril emakume taldea eta haurren taldea. Kultura sailean antolatutako ekintzetan beste taldeekin izandako harremana azpimarratu zuten, baita literatur lehiaketan grabaketa modalitate berriak izan zuten arrakasta ere.

Sensibilizazio taldean merkatariekin egindako lanari garrantzia eman zion Amaia Ugartemendia taldeko teknikariak. Komertzio eta dendari batzuekin hitzarmena aurrera ateratzea kosta arren, aurrerantzean arlo honetan burubelarri jarraitu behar zela adierazi zuen, "merkatariek behar duten materiala sortu eta bakoitzari bere mailan exigituz".

Hutsune bezala, euskara batzordeko harreman eskasa nabarmendu zuen Jon Ander Loidik.

Aurtengo plangintza

Aurtengo iharduerari dagokionez, Loramendik iazko antzera, 11,7 milioi pezetako irteerak aurrirakusten ditu.

Sarrerak, berriz, 9 milioitakoak, horietatik 7,9 milioi Udalak jarriko dituenak. Irteeretan jaiak antolatzen erabiltzen den aurrekontua murriztu egin zela aipatu zen, honen arrazoa "jaietako ekintzetan diru asko joatea eta euren zeregina konkretuki hori ez izatea izan zen".

Diru kopururik haundiena, bestalde, ludotekak eta Berbarik edo sensibilizazio taldeak eramango dute, batak 3,5 milioi eta besteak 3milioi. Azken honetan elkarrekin harremana sendotzeko beste langile baten kontratazioa aurrirakusten da, "azken urtean merkataritza plangintzan zentratu garelako eta ez horrenbeste taldeetan".

Bestalde, funtzionamenduan praktikotasuna bilatu asmoz, Josu Sarasuak, elkarteko lehendakariak, hementik aurrera idazkari batzordea eta zuzendaritza batzordea egongo direla adierazi zuen. Idazkaritza batzordea hamabostean behin elkartuko da eta bertan gaur egun elkarrekin dituen hiru liberatuak, diruzaina eta zuzendaria bilduko dira. Zuzendaritza batzordea, berriz, bi hilean behin elkartuko da gutxienez eta gai konkretuetan berak izango du azken hitza.

Geldialdia 35 lan orduen alde

Pasa den apirilaren 24ean, ordu beteko geldialdirako deialdia egin zuten sindikatuek. Helburua, asteko 35 lan orduak errebindikatzea zen. Honela, desenplegu eta Seguritate Sozialaren aurka borrokatzeko.

Inguruko herrietan bezala, Aretxabaletan ere hainbat elkarte bateratu zitzaion ordu beteko geldidi honi. Adibidetzat, herriko eskola eta hainbat lantegi daude.

7.Irakur Maratoia Kurtzeberri eskolan

Atzo, apirilak 29, 7. irakur maratoia antolatu zuen Kurtzeberri eskolak. Ekintza hau, eskolako "Literatur bideetan" izeneko egitarauaren barnean kokatzen da. Honen helburua, irakur zaletasuna bultzatzea izan zen. Maratoi honek, goizeko 8,30etatik arratsaldeko 7ak arte iraun zuen. Horretarako, eskolako irakasle, ikasle, guraso eta herritarrek egun osoan zehar parte hartzeko txandak antolatu ziren. Ekintza arrakastatsu honi bukaera emateko, Ohiulari Klowneko partaidea den Maite Larreak saio umoretsu bat eskeini zuen.

Bi seme-alabarekin familia ugaria

Apirilaren 14an onartu zen legearen arabera bi seme-alaba izatea, horietan bat lanerako ezgaitua edo elbarritua denean, familia ugaria izango da hementik aurrera. 94tik indarrean zegoen legearen arabera, hiru seme-alaba edo gehiagoko familiak ziren laguntza jaso zezaketenak. Beraz, aurrerantzean, irakaskuntza, garraioan... laguntza jaso ahal izango dute bi seme-alaba dituztenak, horietan bat ezgaitua edo elbarritua bada.



Pazko-bildotsa Leire Arietaleanizbeaskoarentzat

Sendotzako gazte taldeak Kolonbiako Espiritu Santu ikastetxeko haurren alde ateratako errifan irabazlea Leire Arietaleanizbeaskoa izan da. Leirek bildots ederra irabazi zuen, honezgero janda ere edukiko dutena.

Sendotzako taldeak 160.000 pezetako dirulaguntza lortzea zuen helburu ikastetxeari laguntzeko. Esan beharra dago gabonetan egindako ekintzekin eta errifan salmentekin helburua lortu dutela. Euren aldetik herritarrei eskerrik beroenak bidali nahi izan diete emandako laguntzagatik.

Jaunartze elebidunak

Aurreko urteetan moduan, aurtengo maiatzean ere Jaunartzeak ospatuko dira herrian. Bederatzi urteko 36 hurrek hartuko du parte elizkizun honetan.

Maiatzaren 3a eta 10a izan dira Jaunartzea ospatzeko aukeratu diren egunak. Konkretuki, Jasokunde Andra Mariaren Elizan, eguerdiko 12etan izango direnak.

Aldez aurretik, apirilaren 28an Penitentiaren ospakizuna, hau da konfesioa egin zuten bai hurrek baita beraien senideek ere.

Hizkuntz berezitasunik ez

Katekesia batzuek euskaraz eta beste batzuek erderaz egin badute ere, Jaunartzea elebiduna izango da.

Orain arteko Jaunartze guztiak, erderaz edo euskaraz ospatu izan dira. Sakramentu hau egingo duten haurrak gai dira guztia euskeraz egiteko, baina askoren familiar-tekoak aldiz ez. Bestalde, katekesia erderaz egin duten 5 haur daude, elizkizun honetarako, euskarazko beste talde batekin elkartuko direnak. Horregatik, meza bi hizkuntzetan egitea erabaki da.

Antonio Astigarraga parrokoak esan bezala, "Hizkuntzarenegatik bereiztea oso pobrea iruditzen zait.

San Pabloren heriotzak eta piztuerak dioen bezala, kasu honetan ez dago erdeldunik, euskaldunik edo frantsezik, elkarte batetako kideak baizik".

Gehiengoa euskaraz izango da, baina sarrerak ere erderaz egingo dira, euskara ulertzen ez dutenek, Meza jarraitu ahal izateko. Maiatzaren 10ean, erderazko kanta bat eta jaunartzeko abestia ere erderaz izango da. Honetan erdera gehiago erabiliko da.

Jaunartzea egingo duten hurrekin lanean aritu diren katekistak, Pili Olazabal, Karmele Unzueta, Eli Balza de Vallejo, Glori Ibabe eta Maria Jesus Arenaza izan dira.



LOGOPEDIA ZENTRUA

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea
Tel: 79 79 46
ARRASATE




LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

t
x
i
l
a
r
r
a



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABAETA

Aldibi



Aldibi, etorkizunari aurrea hartuz.

- Ordezko pieza originalak
- Salmenta osteko zerbitzua
- Finantzaketa zure neurrira
- Aseguru desberdinak zure zerbitzura
- Autoen alokairuen enpresa eta renting-a
- Aukerako 100 autotik gora, marka guztietakoak
- 3.000 m² automobilari eskainita



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S. L.

VOLVO

Mondrakar, S.L.




mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.




Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



MITSUBISHI
MOTORS

Aldikar autoak,

Julen Cobos

Chiapaseko herri indigenetan begirale

Julen Cobosek zortzi hilabete inguru egin ditu Mexikoko Chiapas eskualdean. Bertako indigena komunitateetan begirale aritu da. Hilabete batzuk barru Euskal Herrira itzultzekoa bazen ere, ez du bertan gelditzeko aukerarik izan Mexikoko gobernuak bertatik bidali ondoren.

- Julen, nolatan joan zinen Chiapasera?

- 94an Guatemalan egon nintzen eta bi hilabete pasatu nituen Maya indigena talde batean. Bertako jendeak eta bizimoduak erakarri ninduten, eta ostera ere horrelako esperientzia bat bizitzeko gogo gelditu zitzaidan. Iaz Bilbon nengoela Chiapaseko elkartasun plataformarekin harremanetan egon nintzen eta bertan komunitate kanpamenduetarako jendea eskatzen zutela jakin nuen. Chiapasek jasaten zuen egoera pixkat ezaguturik eta kanpamenduen lana efektiboa zela ikusirik bertara joatea erabaki nuen.

- Mexikoko gobernuak Estatutik bota zaituzte, zer leporatzen dizuete?

- Denetik esaten dute, gu bertako indigenak harri eta makilekin ejertzitaren kontra joateko antolatzen ari ginela. Gobernuaren kontrako deklarazio eta akto politikoak egin ditugula... azken finean bertako po-



Julen Cobos Chiapaseko Maya indigenekin

litikan sartu garela, kargu guztiak gezurrak izanik. Gainera guzti hori inongo arrazoi eta argumentu barik leporatu digute, baina Mexikoko gobernuak 33. artikulua arabera, edozein pertsona bota dezake, gustokoa ez izateagatik bakarrik. Gainera ezingo dugu berriro Mexikora itzuli, bertan harrapatzen bagaituzte 10 urteko kartzela zigorra izan dezakegu.

- Begirale giza joan zara hemendik. Zein izan da bertan zuen funtzioa?

- Bakerako kanpamendu zibi-

letan parte hartu dugu. Funtzio orokorra guztiontzat berdina da: bertako egoeraren begirale izatea, hau da, komunitateetan gertatzen diren irregularitateak jaso eta salatzeari; bertako komunitateen seguritatea zaintzeko.

- Indigena komunitateek zer eskatzen dute momentu honetan?

- Bakea, justizia eta duintasuna. Orain urte batzuk gobernuak eta Zapatistek, indigenen errepresentazioan azken hauek, San Andresko akordioak sinatu zituzten. Horien artean autodeterminazio eskubidea zegoen, baina gobernuak akordioa ez zuen lege bihurtu. Gobernuak ez ditu akordioak betetzen eta komunitateetan militarren presentzia gero eta handiagoa da.

Egoera oso larria da han. Jende asko atxilotu eta kartzelaratu dute eta komunitate batzutan gizonak oihanera ihes egin behar izan dute; emakume eta umeak etxean daude irten barik.

Bestalde, Chiapas lurralde aberatsa izanik, gobernuak interes ekonomiko asko ditu bertan eta lehengai ugari ateratzen du bertatik, petroleoa esaterako. Han jasotzen den guztiarekin, bertan laguntzea eta inbertitzea izango litzateke justuena, baina hori ez da gertatzen, esaterako mediku falta dago. Hango

DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

**BENGOA
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta
mortzilak*

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**Mobiliario
ARENAZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABAleta

umeak neumonia batekin hil egiten dira.

- Bestetik, zein da me-xikar gobernuaren estrat-egia?

- Komunitate indigenen eta zapatista gerrilen (EZLN) baseak indar gutxituz joatea.

Gobernuaren aldetik bo-rondate falta handia dago negoziaketarako. Komunita-teei prezio handia egiten zaie eta gogor ari da indi-genen aurka. Gobernuak bere aldetik ez badu boron-daterik jartzen, enfronta-mendua eta gerra sortuko da.

- Arazoaren ardatza zein da?

- Orain 500 bat urteko konkistan dago auzia. Chia-paseko komunitateak egun batetik bestera ezer gabe geratu ziren. Geroztik hutsaren hurrengoak dira. Poliki-poliki oihanerantz



Chiapas herri nekazaria da

bideratu dituzte, lurrik txarrenak utziz eta bertan ere giza-eskubideak errespetatu barik.

- Bertako jendea nola-koa da, nola bizi da?

- Herri nekazaria da. Ama lurrarekin lotura haundia dute. Oinarrizko elika-gaia artoa da eta horrekin janari asko egiten dituzte.

Bizitzeko ilusio handia duen jendea da. Lanetik kanpo beti dute denbora lasaitasunerako, berba egi-teko, taldean egoteko... Ba-lore aberatsak dituen komu-nitatea da. Ez dago hemen-go indibidualismoa; komu-nitateak eta auzo-lanak indar handia dute. Euren hizkuntza, ohiturak, poli-tika... duen indigena taldea da.

- Zer jaso duzu hango gizartetik?

- Ondorio asko atera-tzeko ditudan arren, gure mundu zibilizatu honetako erre-geletan sartzen ez diren herrialdeak badirela konturatu naiz; munduko pobreenak izan arren, euren iden-titate eta eskubideen aldeko borro-kan etengabe dihardutenak.

Bestetik esango nuke gure mun-du zibilizatuak eta harek lotura handia dutela. Hango eta hemengo arazoak historia berdin baten emai-tzak dira. Gure bizitzeko erak han eragina du eta alderantziz.

- Bukatzeko Julen, komuni-kabideek zein neurritan zabaltzen dute bertako arazoa?

- Gure expulzioak komuni-kabideetan izan duen oihartzunak erreflexiora eraman nau. Komuni-kabideek morboa dagoenean izuga-rrizko garrantzia ematen diote notiziari eta beraiek markatzen dute garrantzia. Chiapasen arazoa egune-rokoa da eta badirudi gurea moduko ekintza larriak gertatzen direnean bakarrik direla notizia. Komuni-kabide txikiek, beste filosofia batekin lan egiten dutenek, apurtu egin beharko lukete hori.

“Chiapaseko borroka egunerokoa da eta badirudi komunikabideek ekintza larri bat gertatzen denean bakarrik ematen diotela garrantzia”



Chiapaseko neska indigenak



**“Baina argi!
kirolak arazoak
sor ditzake,
bereziki gehiegi
praktikatzen
badugu, inten-
tsitate gehiegiz
edo oker prak-
tikatzen badu-
gu”**

Aktibitate fisikoa eta osasuna

Aktibitate fisiko edo kirol bat erregulariki praktikatzeak, gure osasunean hobekuntza garrantzitsuak sortzen ditu, hau da, indartsuago sentiarazten gaitu eta, era berean, edozein aktibitate egiterakoan gutxiago nekatzen da, bizkarreko arazoak ekiditzen dira, gure pisu egokian mantenduz. Guzti honek, kolesterola neurri egokian mantentzen laguntzen du eta gainera gure animoan zerikusia du, umore hobea edukitzen eta azken finean alaiago egoten.

Baina argi! Aurrean aipatutako guztia gure kontra jar daiteke. Kirolak arazoak sor ditzake, bereziki gehiegi praktikatzen badugu, edo baita oker praktikatzen badugu ere, gure ezaugarriei ez dagokien kirola eginez esaterako.

Arazoak saihesteko gaiak adituak diren profesionalekin egotea gomendagarria da, gure osasun

egoera aztertuko dutelako, bai geldirik eta baita mugimenduan ere. Gure ezaugarri indibidualak kontutan izanik, zein kirol komeni zaigun eta zein intentsitate eta maiztasunekin praktika dezakegun esango digute.

Bukatzeo, aktibitate fisiko erregular bat egitera animatu nahi zaituztet, modu osasungarri batean. Adinak eta egoera fisikoak ez du axolarik azterketa eta balorazio baten ondoren mundu guztiak egin dezake kirola eta.

Ah! eta zuen egoera fisikoa hobetzeko kirola egiteak sufrimendua eta nekea suposatzen duela uste duzuen guztiok, oker zaudete!

Kirola ez da sufrimendua. Gogoratu kirola egiteak atsegina eta dibertigarria izan behar duela beti.

LORE GARAI

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

**PAGALDAI
Opari denda**

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

Argazkian Javier Galdos atxabaltarrari buruz Aragoiko egunkari batek ateratako azala agertzen da. Javierrek, orduan Zaragozako jokalaria zenak Zaragozako San Antonio Torrero konbentua utzi eta abitua futboleko kamisetagatik aldatu zuen, bitxia benetan. Zaragozan "El capuchino de oro" deitzen zioten. Gaur egun Andorran bizi da.

este monumento de piedra se educaba "El capuchino de oro". Hasta que un día el fútbol le llamó y dejó el hábito por la camiseta de fútbolista. "¿Por qué será algún día? El lo ha dicho: "Solo sabe Dios donde guiar mis pasos".

(Foto García LUNA)

Herriko futbol harrobia

Herriko futbol harrobitik jokalaria ugari eta onak irten dira. Hasiera batean Alavesa zen herriko jokalariez interesatzen zen taldea eta bertan jokatu zuten herriko betaranoenak. Egun Errealarekin sinatuta dagoen hitzarmenaren ondorioz, bera da herriko harrobiaz gozatzeko aukera duena.

Futbolaren historia UDA elkarrearen 52 urteek markatzen dute gure herrian. Sorreratik hona beste talde batzuen harrobi garrantzitsua izan dela esan daiteke. Hasierako jokalaria Alavesera joan ziren, eta jakina, "gauza haundia zen Alavesera joatea" Bixente Etxeandiak adierazi digun moduan. Baina bestelako taldeetan ere izan ditugu atxabaltarrak, Mirandesen, Eibarren, Errealean, Atletik-en... baita urrunagoko taldeetan ere, Murtzian, Zaragozan eta Gijonen esaterako.

HASIERAN ALAVESERA

Ez ziren ez garai berdinak ordukoak eta gaurkoak. UDA sortu zenean, hasierako hiru urtetan ez zen jokalaririk kanpora irten. Lehen harremanak Alaves taldearekin izan ziren, Juan Antonio Martinez de

Agirre lehendakaria zela. Bixente Etxeandia izan zen Alavesak fitxatu eta kanpora irten zuen lehen jokalaria. Trenean joaten zen Gasteizera, "artean kotxerik ez nuen eta", azaltzen du. Hileko ordainsaria ere gogoan du: 1250 pta. Baina hilea ordaintzeko justu-justu helitzen zen horrekin. "Astea Gasteizen pasatzen genuen eta pentsioa 25 pta zen eguneko. Zinea, berriz, bost pezeteta. Beraz, ez zitzairen diru asko sobratzen eta jakina azkenean amari eskatu behar".

Kontua da, hasiera bateko harrobi gehiena Alavesera joan zela, Sebitas, Jesus Uribesalgo, Zubizarreta... Alavesa zen itxura denez, atxabaltarrekin fijaszen zena.

ATLETIK ETA ERREALERA

Orain urte batzuk UDAK Atletik-ekin egin zuen kontratua eta harrobitik irtetzen ziren jokalaria guztiak Atletik taldera joaten ziren. Baina bazkideek ez zuten hau ondo ikusten, probintziako taldea Errealan izanik, ez al zen logikoagoa

● MI SUEÑO ES JUGAR CON EL REAL ZARAGOZA EN PRIMERA DIVISION

● He dejado el apostolado religioso, pero no ~~apostolado~~ seguiré

● ¡Mañana sólo Dios sabe dónde puede guiar mis pasos!



EN Archaleta, un pueblito de la zona verde Gupúzoa, nació, hace veinte años, Javier Galdos Alifeta; que, al igual que otros muchos nacidos en su tierra —Echeandia, Subinas, etc.— demostraron desde niños sus aficiones al fútbol.

—A los diez años ingresó en el convento de los Capuchinos de Aljasa (Navarra); fue como una inspiración; sentí una vocación auténtica; no sé a que influencia se debió. Inspiración, desde luego, quería ser religioso. Cinco años estuve en Aljasa y dos en Zaragoza. Jugando siempre con los equipos de los Padres Capuchinos. En Zaragoza lo hice con juveniles y en regional, con nuestro equipo: Capuchinos.

Los técnicos zaragozistas decían de él: "Es un fenómeno; llegará a ser una figura del Real Zaragoza y del fútbol español".

A la vista por todos, de sus

«Cuántos goles has marcado este año?»
—Veintidós.
—«Son los muertos.»
—«¿Qué diría Don Torero...? Y a pesar de eso a ser cedido al Córdoba?»
—No sé más que lo que los periódicos, puesto que club, ni nadie me ha dicho palabra.
—En el supuesto de que cedido; y tu, gustoso, vas a marchar porque esperas ser bueno o por que eres malo.
—Si me voy, que no espero volver al Real Zaragoza defender sus colores en la división. No soy malo; cedido voy a ser mejor y útil al club. Buenas a primeras, puede darme el rendimiento que espero pero dándose partidos así. Si soy cedido a algún club por que el Real Zaragoza tiene una plantilla suficiente y

Errealera joatea?

Orain lau urtetik hona UDAK Errealarekin hitzartuta du kontratua eta horren arabera UDAKO harrobitik sortzen diren jokalaria hartzeko lehentasuna du. Kontratuaren arabera Errealak diru kantitate bat ematen dio urtero Aretxabaletako futbol elkarteari, baita fitxatzen duen jokalaria bakoitzeko ere.

Gaur egun Errealean dabilzan jokalariek Zubietan egiten dituzte entrenamenduak. Gaztetxoek furgonetan joaten dira, Akaitz Garai eta Iker Orueta esaterako. Unai Egurbidek, Jose Javier Barkerok eta Mikel Etxabek Donostian pasatzen dute astea. Azken hauek astean behin ezik egunero izaten dute entrenamendua eta astebukaeretan partidua. Ia ia profesionalak moduan.

Ez da ez samurra jokalaria on atera eta goiko taldeetan jokatzea. Dena den, zorterik onena opa diegu gaur egun bai Errealean, Eibarren... dabilzan jokalaria atxabaltarrei. **Zorterik onena guztientzat!**


Jokalari beteranoak eta gaur eguneko harrobia osatzen dutenak

Jesus Urkia "Sebitas" 60. urtetik aurrera, Mondra, Bergara eta Mirandes taldeetan ere atezain izandakoa da. Futboleko eman zituen azken bi urteak, berriz, Mondra taldean egin zituen, hirugarren mailan.

1930-10-26


Atezaina

Jesus Urkia, "Sebitas" ezaguna, UDAko lehen mailako errejonaleko eta Preferenteko atezaina izan zen. Soldadutzara joan zenean, Victoria taldearekin fitxatu zuen. 52-53 denboraldian, berriz, bigarren mailan zegoen Alaves taldean jokatu zuen. Bi urtetan lehen mailan ere egon zen.



Bixente Etxeandia
1931-10-12
Aurrelaria

Luzea da Bixente Etxeandiak futboleko eman duen bizitza, bai jokalaria, entrenatzaile eta gaur egun UDAko lehendakari lanean. UDAko errejonaletik Alaveseko bigarren mailara eman zuen lehen pausoa. Bertan zegoela Alavesak lehen mailara igo zuen. Gero Granada, Huelva eta Sestaoko taldeetan ere ibili



zen, baita Mirandes taldean ere jokalaria eta entrenatzaile bi urtetan. Mondran eta Bergaran ere jokatu zuen eta gaur egun UDAko lehendakaria da azken lau urte hauetan.

Atxabaltatik irten duten jokalaria guztiak ezingo ditugu aipatu, ez horixe! Baina bai, beharbada, beteranoen artean urrunen heldu direnak, eta gaur egun beren jokua beste talde batzutan erakusten dutenak: Errealean, Eibarren, Aurrera Vitorian... Denak dira atxabaltarrak eta gehienak UDAko jokalaria izandakoak.

UDAREN 52 urteko historian jokalaria asko pasa da bertatik eta onak gainera. Badakigu asko direla gaurkoan hemen agertu ez arren, hauen besteko aipamena merezi dutenak.

Bestalde, gaur hemen jaso ez baditugu ere, eta atxabaltarrak izan ez arren, UDAtik pasa eta famatu bihurtu diren jokalaria ere asko ditugu: Lopez Recarte, Idigoras, Diaz de Gereñu, Etxeberria, Cervantes, Roberto Olabe...

Dena dela, orrialde hauetan beterano eta gaur egungo herriko harrobia osatzen duten jokalaria gazteei aipamen bat egin nahi izan diegu.

Jesus Uribesalgo
1937-1-2

Ezkerreko defentsa

Gaur egun Gijonen bizibada ere, bere futboleko lehen urteak UDAN egin zituen. Hamazazpi urtekin UDAko lehen errejonalean Gipuzkoako kopa lortu zuten eta urtebete beranduago Alavesak fitxatu zuen. Orduan bigarren mailan zegoen Alavesean lau urte egin zituen. Hurrengo bi urteak Levanten egin zituen eta ondoren



urtebete lehen mailan zegoen Mallorca taldean. Futboleko azken sei urtetan Gijoneko Sporting-en jokatu zuen. Gijonen emaztea ezagutu eta bertan bizi da gaur egun.




Zubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABAETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
ARETXABAETA

Jose Antonio Zubizarreta

1943-10-6

Erdilaria

Hamalau urte zituela HUDAko jubeniletan hasi zen Jose Antonio eta 18 urterarte bertan jarraitu. Tartean Gipuzkoako selekzioan ere jokatu zuen. Jarraian hiru denboraldi Mirandes taldean egin zituen, hirugarren mailan. Berriz ere etxera hurbildu zen ondoren, Mondra eta UDAn jokatu.

Bukatzeko, Mondran denboraldi batez jokalaria eta entrenatzaile lanetan ibili ondoren, Mondran zebilela utzi zuen futbola, 27 urte zituela.



Jabier Elkoro

1948-11-4

Defentsa

Errealean ibilitako jokalaria da Jabier Elkoro eta gaur egun Donostian bizi da. Bere futboleko historian, UDAko jubenil eta erregionalean ibili ondoren, Sansek fitxatu zuen eta lau urte egin zituen bertan. Ondoren zazpi urtez Errealean ibili zen, horietatik urte bat Eibarri eskainita. Zoritxarrez, Errealean hirugarren urtea egin zue-

nean, lesio txiki bat izan zuen eta ondorioz oso gutxi jokatu zuen. Dena dela, bere defentsarako abileziak erakusteko aukera izan zuen lesioa izan aurretik.



Javier Galdos

“El capuchino de oro”

1950-1-20

Aurrelaria

Zaragozako egunkarrietan ezaguna egin zen Javier Galdosen argazkia. “El capuchino de oro” deitzen zioten. Zaragozan seminarista zegoela, capuchinoetatik irten eta Requeté Aragonesen taldeak fitxatu zuen. Laster bere helburua beteta ikusi zuen: Real Zaragozan jokatzeko. Abiadura azkarra eta golegile bikaina zela erakutsi zuen.




Murtzian, Errealean Irulegiren zuzendaritzapean eta Tudelan ere ibili zen. Andorra izan zuen bere azkenengo taldea, bi urte egin zituen bertan. Gaur egun bertan bizi da.

Andoni Zubizarreta

1961-10-23

Atezaina

Futbolean bide profesional luzea erakusten digu Andoni Zubizarretak. UDAko jubeniletatik Alavesera egin zuen salto eta hiru urte egin zituen bertan. Atletika izan zuen hurrengo taldea, bere atezain abileziak bost urtetan erakutsi zituen bertan Bartzelona taldeak fitxatu zuen arte. Bartzelonan zortzi urte egin



ondoren, gaur egun Valentzia taldeko atezaina da. Nahiz eta futbolean denbora luzean jarraituko ez duen aitortu, Frantziako futbol olinpiadan ikustea espero dugu guztiok.

Igor Arenaza

1974-2-11

Erdilari-aurrelaria

Hamabost urte zituela Almen eta UDA taldeen artean koordinatutako taldean jokatu zuen Igor Arenazak. Urtebete beranduago Athletic-era salto egin zuen. Lau urte egin zituen jubenil eta 19 urtez azpiko mailetan. Ondoren Bilbao Atletikek fitxatu zuen eta bertan ibili zen urtebetez. Orain lau urte Eibar tal-



dera etorri zen, eta gaur egun bertan jarraitzen du 24 urteko atxabaltarrak. Beraz, Arenazak bost urte egin ditu bigarren mailan, lau Eibar taldean eta urtebete Bilbao Atletiken.


Tito Etxeandia

1962-9-12

Erdialdeko defentsa

Bere aitak bezala urte Basko eskaini dizkio Tito Etxeandiak futbolari. UDAko preferentean zebilela Alavesak fitxatu zuen eta bi urte egin zituen bertan, bigarren B taldean. Ondoren beste bi urtez Bergaran hirugarren mailan jokatu zuen. Futbolari eskaini zizkion azken urteak UDAko preferentean

eman zituen, iaz futbola utzi zuen arte. UDAn federatu moduan hogeitun urte egin ditu guztira eta horietatik erdiak preferente mailan. Ez da gutxi.



J. Javier Barkero

79-4-27

Ezkerreko barnekoa

“La zurda de oro” deitzen diote. Errealean seigarren urtea du aurtengoa eta Sansen jokatzeko du. 1000 miloiko klausula du. Donostian pasatzen du astea, entrenamenduak asteartetan ezik egunero izaten ditu eta.



Mikel Etxabe

78-9-12

Erdilaria

Zazpi urte daramatza Errealean 19 urteko Mikel Etxabek. UDATik Errealeko infantiletara egin zuen salto eta gaur egun Sanseko jokalaria da. J. Javier Barkerok moduan 1000 miloiko klausula du Errealean.



Unai Egurbide

79-2-20

Erdilaria

Hamairu urtekin hasi zen Errealeko infantiletan. Geroztik kadete eta jubenetan ibili da, guztira sei urte egin ditu Errealean. Datorren urtean Sansera pasatzeko aukera zaila ikusten duen arren, ez du esperatarik galdu.



Asier Murgoitio

79-9-14

Defentsa zentrala

UDAKo jubenetan bi urte egin eta gero, aurtengoa Vitorian jubenetan jokatzeko du Asier Murgoitio 18 urteko atxalbaltarrak. Aurtengo denboraldirako UDATik Gasteizko taldera zediduta dago.



Akaitz Garai

83-4-15

Ezkerreko karrileroa

Errealeko infantil mailan bi urte jokatu ondoren, aurtengoa kadete mailan bere lehenengo denboraldia du. Beraz hiru denboraldi egin ditu Errealean 15 urteko jokariak.



Iker Orueta

85-2-10

Ezkerreko barnekoa

Errealeko infantil mailan lehenengo urtea du aurtengoa Iker Oruetak. Oho-rezko liga jokatzeko bukatu berri dute. Bere nahia Errealean jarraitzea da, entrenamenduak Zubietan izan arren, oso gustura ari baita.



ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABAleta

GARBITU S.
COOP.

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28


Esko Sport

Intxaurtxueta, 5
ESKORIATZA

**Deba Garaiko
kirol eta
SPORT moda**

Larunbat arratsaldetan
zabalik

Gorriñaren bidea oinez

Dagoeneko pasa dira 67 urte, Gorrinak Urkulu-Jaturabe-Arantzazu-Urbixa-Aizkorri-Urbixa-Arantzazu-Jaturabe-Urkulu-Aretxabaleta bidea egin zuenetik. 1.931. urtean, buelta zazpi ordu baino gutxiagotan egitea lortu zuen.

Orain dela 3 urte Murrukixo M.Eak Loramendi E.Eri botatako desafioa dela eta ekintza berri bat sortu da herrian. Desafioa, "baietz joan etorria 5 ordu baino gutxiagotan egin" izan zen. Esan eta egin.

Ondorioz, datorren maiatzaren 16rako III. Gorriñaren bidea antolatuko du Murrukixok.

Oinez egiteko aukera

Aurrekoetan ez bezala, aurten oinez egiteko aukera ere badago. Honen zergatia, lehenengo urteetako partaidetza eskaxa izan da. Kontutan



Aurreko urteko partaide batzuk

hartu behar da ibilbidean 1.528 metroko mendia dagoela eta korrikan egiteko ez dela edonork aurrera egiteko modukoa. Beraz, bai korrikan bai oinez egin izango da.

Helburua, Gorriñaren bidea egitera partaide gehiago animatzea da.

XX. Ojala-Zelaiko Krossa



Azken 20 urteetan moduan, aurten ere Ojala-zelaiko kross herrikoia ospatuko da, maiatzaren 10ean. Ekintza honi gaztetxoek emango diote hasiera. Benjamin, alebin eta infantilen probak, goizeko 10etatik aurrera burutuko baitira.

Jarraian, goizeko 11etan nagusien froga hasiko da. Lasterketa honetako partaideen sailkapena, honela izango da: alde batetik emakumeen absolutoa eta bestetik gizakumeak. Azken hauek, junior, senior eta beteranoetan banatuko dira.

Ibilbidea Urkulu urtegiaren inguruan izango da. Gizakumeetako seniorrek buelta bi eman beharko dute. Gainontzekoek, aldiz, bakarra.

Lasterketa amaitutakoan, sari banaketa izango da. Guztira 160.000 pezeta banatuko dira saritan eta garaikurra ere emango zaio kategori bakoitzeko azkarrenari. Gainera, parte hartzaile guztiek kamiseta bana jasoko dute eta ondoren egingo den zozketan ere, oparia jasotzeko aukera egongo da.

Iaztik Kamel Zianik 40'29''tan duen errekorra gainditzen duenari, 25.000 pezetako saria emango zaio.

Parte hartzaileen izen ematea

Partaideek, goizeko 9'30 eta 10'30 bitartean izena eman beharko dute. Aldez aurretik apuntatzea nahi duenak, kirol etxera dei dezake (79 64 61). Inskripzioa, 500 pezetakoa da.

Karate eskola arrakastatsua

Dagoeneko martxan dago Karate eskola. Honek jaso duen erantzuna ezinhoba izan da, izenematea ugaria izan da eta.

Baina leku ezaren ondorioz, hainbat pertsona ezin sartu gelditu da. Hala ere, iraile-rako arazo hau konpontzea espero da.

Bitartean, karateko saioetara joan ahal izango direnak gaztetxoek izango dira. Hauen entrenamenduak, martitzen eta eguenetan izaten dira arratsaldeko 7etatik 8etara.

Arlutz saskibaloia txapelketa hasi da

Pasa den asteburuan, Arlutz tabernak antolatutako saskibaloia txapelketa hasi zen.

Aurten ere, aurreko urtean bezalaxe, 6 taldek izena eman dute. Esatekoa da, azken bi txapelketa hauek orain arteko talde gutxien bildu dituztenak izan direla. Partaide guztiek elkarren aurka jokatu dute, bukarran final aurrekoak eta finalak jokatu ahal izateko.

Saskibaloia txapelketa honek 2 hilabete inguruko iraupena izango du, eta partiduak zapatu arratsaldean jokatu dira; 3etan hasi, eta 7etan bukatuko direnak.

Bertan parte hartu ahal izateko oinarriak honako hauek izan dira: taldea 10 jokalariz osatuta egotea, talde bakoitzak arbitro bana izendatzea eta 5.000 pezetako ordaintzea.

Ortzadar berria

Azken aldi honetan, arazo batzuk direla eta, Ortzadar Aretxabaletako Atsedean Taldeak ez du ekintzarik antolatatu. Beste elkarte, lantegi eta edozeinek izan dezakeen bezala, Ortzadarrek beheraka bat jasan du bere antolakuntzan. Honi irtenbide bat aurkitzeko, hainbat aldaketa egingo da taldean.

Azken urteetan, Ortzadar A.A.T zapatuz zapatu, 6tik eta 15 urte bitarteko neska mutikoekin aritu izan da.

Herriko atsedeen talde honek, hainbat eta hainbat ekintza antolatu du euskara bultzatu eta partaideen artean harreman sendo bat sortu asmoz. Berau aurrera ateratzeko, guztiek ondo pasatzea ezinbestekoa izan dute.

Azken bi urte hauetan, bai haur eta bai begiraleen aldetik motibazio eskaxa nabaritu dute. Horregatik, iaz ekintzak zapatuz zapatu egin beharrean, hasiera batean 15 egunetik behin prestatzeari ekin zitzaion. Honek ez zuen emaitza onik ekarri, horregatik, saio puntu-lak egiteari ekin zitzaion. Honen adibidetzat, azaroan antolatutako Ortzadarren eguna dago.

Horrela, denbora aurrera joan da eta ez da beste ekintzarik antolatu.

Ortzadarren beharra

Egia esan, atsedeenaldiko talde baten beharra badago Aretxabaletan. Horregatik, eta Ortzadar taldea berpiztu asmoz, herriko hainbat pertsona honen alde lanean ari da.

Egun, Kurtzeberri eta Almen Ikastola, Loramendi E.E, Ludoteka, Ortzadar, Kultura eta Drogo-



Aurreko urtean Ortzadarrek antolatutako ekintzetariko bat

menpekotasuneko ordezkariak elkartzen dira. Martitzenetan biltzen dira, eta dagoeneko hasiak dira uztailako udaleku irekiak antolatzen. Orokorrean ekintza berriak prestatu dituzte, baina batez ere 12-14 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutakoak. Hauen adibidetzat, antzerki tailerra, goma espuma ikastaroa eta sukaldaritza ikastaroa daude.

Bestalde, uztailak 98ko udalekuan aritzeko 40 begirale aurkeztu dira. Horietatik erdiak inguru hartuko dira.

Oraindik guztiz zehaztu ez bada

ere, taldea eramateko koordinatzaile eta idazkari bat aukeratuko dira ziurrenik.

Datorren urterako programazioa

98-99 ikasturtean lanean arituko diren begirale talde bat ere badago. Hasiera batean, ekintzak 15ean behin egitea pentsatu eta antolatu bazuten ere, azken momentuan, zapaturo egitea erabaki da.

Haurrekin ekintzarik aurrera atera ez dutenez, denboraldi hau taldea berritu, eta datorren urterako programazioa egiteko erabili dute.

MIREN

*Elunak eta berrietasunak
salneurri bereziak*

Murubide, 1 ♦ 79 67 97

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 79 61 42

BEGIBO

optika

Loramendi, 10

☎ 79 93 21

**Carmen
Fernandez**

ABOKATUA

Belorrieta Auzoa, n° 14 - 4° A
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: (943) 77 05 94
Fax: (943) 79 65 21



Bedarretako futbol zelaiaren bedeinkazioa

1

950eko abuztuaren 27an Bedarretako futbol zelaia inauguratu zeneko argazkiak ditugu begibistan. Atletik eta Alavesek jokaturako partiduak jende asko erakarri zuen Bedarreta futbol zelaira. Bezperen ostean ezer egoten ez zenez, jende guztia joaten zen futbol partiduak ikustera, gizon, emakume eta umeak. Zaletasun handia zegoen futbolerako. Atletik 2-1 nagusitu zitzaion Alavesi. Jesus Urkiak gogoan duen moduan nazioarteko jokalariek ezagunak etorri ziren orduan gurera: Atletikeko Iriondo, Zarra, Lezama...

Denboraldi hura izan zen UDAk herrian bertan jokatu zuen leheneko aldia, irailaren 10ean izan zen partidu ofiziala. Lagun-onak taldearen kontra 3-0 irabazi zuen UDAk. Honeitxek jokatu zuten: Jesus Urkia, Juan Antonio Agirre, Juan Amozarrain, Ramon Antxia, Ramon Barrutia, Jabier Igartua, Jesus Olivares, Bixente Etxeandia, Jose Iriarte, Imanol Alberdi, Migel Iturrospe, Vidal Castro.

Aurretik Iturripen jokatu zuten UDAk partiduak. Hara ere jarraitzaile asko joaten zen oinez.

52-53 denboraldian UDAk Bedarretan jokatzeari utzi behar izan zion eta hurrengo denboraldia berriro ere Iturripen jokatu behar izan zuten atxabaltarrek. 54-55 denboraldia izan zen Ibarra futbol zelaian jokatu zuten lehen urtea.

Goiko argazkian Bedarretako futbol zelaiaren bedeinkapen ekitaldia daukagu, bertan azaltzen diren estatik banaka batzuk bakarrik ezagutu ditugu: **Don Angel Garmendia, Mari Bergaretxe, Ramon Arrue eta Juan Luis Izagirre.**



LANA

◆ MCCk gestio ikastaro eta praktikak antolatu ditu Eroski taldeko supermerkatuetan. Ekonomia, enpresa eta marketing tituludunentzat da. Epea: maiatzak 30.

◆ Erropen konponketak egiten dira. 79 75 82 Conchigatik galdetu.

◆ Neska euskalduna eta esperientziaduna denda batean lan egiteko prest. Tfnoa: 79 81 16 (Estibaliz).

◆ Langaiko lan eskaintza

Torneroa. Ref: 7152/3. Deba Garaian kokatutako enpresa.

Supermerkatuko bigarren arduraduna. Ref: 8069/2. Bilboko ezker aldean kokatutako enpresa.

Barne dekoratzailea. Ref: 8069/2. Bilboko ezker aldeko enpresa.

Bi soldadore. Ref: 7878/3. Arabako lautadan dagoen enpresa.


Bi operario. Ref: 8038/2. Durango inguruan dagoen enpresa.

Informatika irakaslea. Ref: 7953/3. Bilbon dagoen enpresa.

◆ Lanpostu publikoak:

Udaltzaingoaren sargentorako lanpostua. Zizurkilgo Udala. Aurkezteko epea: 98/5/7

Nazioarteko 7 teknikari. Euskal Herriko komunitatea. Aurkezteko



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

DENETARIK

◆ Irrati programa baterako munduan zehar ibili den jendearekin kontaktuan jarri nahi dugu. Deitu Arrasate irratiko telefono hauetara: 79 58 40 (erantzungailua) 79 58 77.

◆ Karro-denda bat salgai dago. (bi logela). Prezioa: 225.000 pta. Deitu 77 11 87 telefonora.

◆ 205 GTX kotxea salgai. SS-Y matrikuladuna. Tfnoa: 79 68 63.

◆ Gitarra espainola salgai. Egoera onean. Tfnoa: 79 72 39. Carlos.

◆ Larre behiak salgai. Tfnoa: 16 06 16/88 50 07.

◆ Erdi tamainako mendi bizi-kleta salgai. Prezio onean. Tfnoa: 77 08 02.

ETXEBIZITZA

◆ Garaje bat salgai dago Murubiden. Prezio onean. Telefonoa: 79 86 12 (Arratsaldeko 7etatik aurrea).

◆ Hornitutako etxea alokatzen da Aretxabaletan, garajeaz. Tfnoa: 79 04 86.

LEHIAKETAK

◆ **Bilboko Aste Nagusiko kartel lehiaketa.** Gaia: Aste Nagusia 1998/Abuztuak 15-23 Agosto. Epea: 1998ko maiatzak 8, Barrainkuako kultur etxean. Saria: 375.000 pta.

BEKAK

◆ **Nazioarteko komertzioari buruzko hezkuntza bekak.** Euskal Herriko komunitatea. 98/5/1. Oinarriak: EHAO, 98/3/30.

◆ **Musika, dantza, antzerkia eta zaharberritzeko lanetan espezializazio ikasketak egiteko bekak.**
- Artea sortzeko bekak.
- Harizko instrumentuen interprete solistentzako "Nicanor Zabaleta" beka.
- Ikertzeko bekak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Epea: 98/5/15 Oinarriak: GAO, 98/3/2.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 77 17 06

Aralar z/g
Tfnoa: 77 17 04

ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Opor luzeak eta euritsuak



Dagoeneko batzuk arduratuta egongo zineten Aretxagazeta berriz kaleratuko den ala ez pentsatuz. Hemen ere lan egutegiak gorabehera haundiak izaten ditu baina opor luze euritsu eta hotz batzuen ostean, batzuen "gozamenerako" eta beste batzuen "desespe-raziorako" hemen gaude berriro.

Oporretan denbora libre gehiago izaten da eta batzuk kirola egiteko erabiltzen dute, beraz, kirol kontuekin hasiko gara. **Fran Migel** xake jokalariaz sari mintzatu gara eta oraingoan ere Donostiako "openean" lehenengo gipuzkoarra izan zen. Hori ez da broma!

Mikel Roldan txirindularia, berriz, garaile suertatu zen afizionatua mailako IV. trofeo Foro de Gorliz lasterketan.

Kultura ere hainbat berriren iturri izaten da. San kristobal Larrinuko elkartearen bertso afaria izan zuten joan den zapatuan. Bertsolariak **Peñagarikano** eta **Mendizabal** izan ziren. Gai jartzailea, berriz, Arantzazuko frailea eta artzaia den **Nikolas Seguro**la. Menua zein izan zen ez dakigu baina ziur gaude gosez ez zirela geldituko.

Zapatu goizean, berriz, Herri Irratiko "Herriz herri"

programakoak izan ziren gurean. Herriko elkarteetako kideak eta beste hainbat lagunek berba egiteko aukera izan zuten bertan: **Antxon Perez de Callejak** ekonomiari buruz, **Jesus Kortabarriak** Urkuluko inguruko ibilaldia aipatu zuen; **Mikel Uribetxebarriak** komunikabideen inguruan; **Jon Ander Loidik** Lora-mendi elkartearen inguruan; **Alberto Izagirre eta Paulo Bengoa** Saretxo elkartetik; **Mariatxen Urkia** musika eskolatik; **Jose Mari Sarasua** Hiruatxetik, **Pablo Txintxurreta** Arrasate-Aretxabaleta institutotik; **Juan Antonio Rodrighez** alkatea... Atxabaltarrok kanpoan beti oso herri euskalduna garela esaten dugu baina egun hartan behintzat erdera askotxo entzun zen.

Irratia alde batera utziz, eta aldizkarietara pasatuz, Argia irakurri baduzue, Baigorri buruz idatzi duten artikuluan izenburua txarto dagoela pentsatuko zenuten, argazki erdian agertzen direnak nafarrak beharrean atxabaltarrak direlako: **Lurdes Llodio, Jasone Gorroño, Luis Mari Urkia eta Mireia Uribetxebarria.**

Kulturatik lan kontuetara pasatuz, **Olaia Etxenagusia** izendatuko dute gaurko plenoan Udaleko erdi mailako hirigintza teknikari lanposturako. Ea honek nolako gustua duen etxean "fatxadak" margotzeko.

Lan kontuekin jarraituz, **Mikel Lopezek** Azken Baster eta Aretxabaletako institutuan lan egiteari utzi eta Elgoibarrera joan da bizitzera. Guass-en erlazio publiko arduradun bezala hartu dute, beraz, aurtengo Portasoleko jaiak antolatzerakoan bere falta igarriko dute. Atxabaltarrok Guassen sartzeko deskonturik izango dugun ala ez, horixe da ez dakiguna.

Eta dagoeneko bukatu dut. Hurrengorako arazorik ez badago behintzat, ez duzue horrenbeste etxoin beharko.

Liburutegiko txokoa


Gerra garaian zazpi urte inguruko mutiko bikiak amonaren etxera Geramago ditu amak, hiritik urrun seguruago egongo direlakoan.

Han, ordea, bizitza oso gogorra izango da eta biak gogor egin beharko dute bizitza aurrera atera ahal izateko. Beren esperientzia koaderno baten idazten dute eta horregatik kontakizunak haur baten ikuspegi kutsatu gabea erakusten digu, gizartearen moralak oraindik ikutu gabeko ikuspegia.

Askotan harrituko gara hemen kontaktzen diren esperientzia gordinekin, baita kontatzeko moduarekin ere. "Benetan dena, ikusten duguna, entzuten duguna, egiten duguna adierazi behar dugu" diote. Koadernoak idazten hasi aurretik, zehaztasuna eta objetibotasuna dira, beraz, hauen hizkuntzaren ezaugarri nagusiak.

Kristof-ek 1986an idatzitako liburu honek badu ikutu autobiografo bat, izan ere berak ere ahizpa biki bat izan zuen eta Hungariatik ihesi joan behar izan zuen gartzetan. Orain arteko lan guztiak frantsesez eman ditu argitara.

Joseba Lopez de Armentia



Koaderno handia

Agota Kristof
(Alberdania, 1997)

APIRILA

30

eguna

UDAL PLENOA

Udal plenoa egingo da arratsaldeko 6etan udaletxeko pleno aretoan.

Gaiak honako hauek izango dira:

- Olaia Etxenagusia izendatuko da erdi mailako hirigintz teknikari lanposturako.

- Lurperatzaileari soldatan osagai berezia gehitzea onartuko da.

- Aurrekontuen kitapenari buruzko informazioa.

- Gellaoko bizilagunen eskaera tratatuko da, ondoren 30 eguneko epean jendeaurrera zabalduz.

MAIATZA

1, 2, 3

MENDI IRTEERA

PICOS DE URBION-ERA

(SORIA) mendi irteera egingo du Zaraia M.T.ak. Irteerak: **Pico de Urbion** eta **Cebollera**.

Aterpea: Aguas vivas.

6

eguztina

BILERA INFORMATIBOA

ARRASATE-ARETXABALETA

institutuaren bilera informatiboa.

LOGSE Batxilergoko eta Heziketa Zikloei buruzko informazioa emateko. Arratsaldeko 6,30etan Arrasateko institutuan.

10

domeka

XX. OTALA-ZELAI KROSSA

Goizeko 11etan hasiko da nagusien proba. Aurretik gazteen lehiaketak egongo dira.

MENDI IRTEERA

Murrukixo M.E.ak **Batxikabo** eta **Kuetara** (Burgos) irteera egingo du maiatzaren 10ean. Irteera goizeko 8etan partenoitik. Izen ematea Arlutz tabernan maiatzaren 7a, osteguna, baino lehen.

16

zapatua

EUSKARAREN EGUNA

GORRIÑA III. MEMORIALA

Aurten bidea takarraran egiteaz gain, oinez ere egingo da, Gorriñaren bidea egitera jende gehiago animatzea da helburua.

17

domeka

OTALA-ZELAI EGUNA

Publizitate erreportajea

PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durangon kokatua, beste guztiengandik gailentzen dena, bere publizitate kulturalan, euskararen, kirolan eta abarreko kontaezin ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxeaz ari gara. Emilio Baqué Delás jauna-ekin gaude (Cafés Baque enpresako Zuzendaria)

Galdera: Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgune handi guztietan ikusten zaituztet -Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats...-. Zergatik hori? Euskara maite duzuelako ala errentagarritasunagatik?

Emilio: Egia esateko, hasiera batean laguntza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenerako, sinpatagatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.

G. Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

E. Euskarazko argitalpenen literatura sarietan eskuhartu izan dugu, IRUÑA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburuak ere argitaratu izan ditugu.

G. Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandal ugari ikusi ohi dugu...

E. Hala da, Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere aritzen gara geure ahalegintxoaz jartzen; baina, hori bai, beti zaletasunezko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.



Emilio Baqué, Cafés BAQUEko Zuzendari Gerentea.

G. Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzue. Errentagarria al da?

E. Beti ez ditugu gauzak errentagarritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzera eta mezua euskaraz ematera bultzatzen gaituztenak. Azkenerako denak du bere ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldizkarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi genuke.

Zabaldu bedi erredua.

LARRAITZ ODRIOZOLA

IKASTARROAK

ESKALADA IKASTAROA


Murrukixo M.E.ak **eskalada ikastaroa** antolatu du maiatzaren 23 eta 24rako. Informazioa eta izen ematea Murrukixoko lokalean martizenetan 7,30etatik aurrera egin daiteke.

BARNETEGIA ZERAINEN

Leintz Udal Euskaltegiak uztailaren 1etik 15era bitartean (aste-buruak barne) barnetegia antolatu du Zerainen. Mintzamen ikastaroaz gain, ekintza osagarriak ere egingo dira Zeraingo aterpetxean: txangoak, hitzaldiak, tailerrak... Gipuzkoako Goierriko kultura, ondarea, giroa... ezagutzeko aukera zoragarria izango da. Prezioa 37.000 pezetakoa da (mantenu osoa). Izen ematea Udal euskaltegietan egin daiteke maiatzaren 22a bitartean. Informazio gehiago Udal euskategian jaso daiteke. Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ederra izango da.

NORBERAREN EZAGUTZA ETA BRIKOLAJEA

Arrasateko emakume sailak antolatutako ikastaroak. Informazioa eta izen ematea Arrasateko emakume saila. (943-773930).



DANTZA IKASTARROAK

Gaur egungo dantza eta jazz dantza. Maiatzaren 2tik ekainaren 2ra.

Karibeko dantzak (salsa, merenge, bachata). Maiatzaren 4tik ekainaren 3ra.

Informazioa eta izen ematea Arrasateko Gazte bulegoa (943-77 09 70).

Auzoetako mezak:

Maiatza (domeka guztietan)

- Galartzan 11etan.
- Koruetan 12etan.
- Arkarazon ordu lean.



BEHARREZKO TELEFONOAK

943...

Aretxabaleta

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Institutua	79 79 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	79 57 40
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	765576
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	08
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00

OPEL 



Zerbitzu Ofiziala

■ **Kotxe marka guztien konponketak**

■ **Zerbitzu guztiak**

Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 79 62 65
/ 79 20 86 / Fax: 77 17 20 ARETXABALETA



Lehenago gabonetan, Carmen Fernández Aretxabaletara etorri zen bizitzera. Irakurtzea gogoko du abokatu honek, baina gainontzeko gauzak bezalaxe, bere neurrian. Egunean bizitzea gustatzen zaio.

• **Nongoa zara?**

Arrasatekoa.

• **Zergatik Aretxabaletara?**

Nire senarra bertakoa delako. Pisuz aldatzea nahi genuen, eta Arrasaten oztopo gehiago dago horretarako. Gainera Aretxabaleta asko gustatzen zaigu.

• **Non egin zenituen zure zuzenbide ikasketak?**

Donostiako Euskal Herriko Uni-

“Egunean bizitzea gustatzen zait”

bertsitatean.

• **Zein da zure espezialitatea?**

Nik zuzenbide ikasketak egin nituen, ez nintzen inon espezializatu. Egun, gai zibilak tratatzen ditut, batez ere familia gaiak. Gai fiskalak ere lantzen ditut.

• **Horren adibiderik?**

Herentziak, sal-erosketak, erregistroak...bi pertsonen artean gerta daitekeen edozein arazo pribatu.

• **Jende asko joaten da abokatuengana?**

Nik baietz uste dut. Gehienak behin arazoa gainean dutenean etortzen dira. Komenigarria izaten da aurrez aholkatzea.

• **Lanean zeri ematen diozu garrantzi gehien?**

Bezeroarekin izaten dudan harremanari.

• **Zuzenbidea esaten duten bezain gogorra al da?**

Letretako gainontzeko ikasketetan bezala, hemen ere ikasi beharra dago. Nola ikasi, pertsona bakoitzaren baitan dago.

• **Gutxien gustatu zaizun asignatura?**

Zuzenbidearen historia. Lehenengo mailan ikasi nuen.

• **Epaiaketa euskeraz egitearen inguruan zer daukazu esateko?**

Oso ondo iruditzen zait. Hala ere,

poliki-poliki sartu behar dela uste dut, oraindik euskeraz dakien epaile gutxi dago eta. Epaile gehienak kanpotarrak dira, derrigorrezko destinoan daudenak.

• **Gaiz aldatuz, zein da hemengo gauzarik onena?**

Bizimodu kalitatea.

• **Hobbyrik?**

Egia esan oso etxezalea naiz, eta gorputzak eskatzen didana egiten dut. Ez daukat hobby berezirik.

• **Zein esanahi dauka zuretzat amaren egunak?**

Bereziki bat ere ez, gainera aurreko egunean guardia egiten egon beharra daukat. Urteko egun guztietan dago guardia egiten duen abokaturen bat.

• **Zein 3 gauza eramango zenituzke irla batera?**

Nire alaba, gizona eta zigarroak.

• **Eguneko unerik onena?**

Alaba lo dagoenean, eta nire lanak eginak dauzkadanean.

• **Carmen, kotxe bat?**

Orain handi bat daukadanez, aldatzerakoan, txiki bat erosiko dut. Ford Ka adibidez.

• **Abokatua izango ez bazina?**

Dekoratzaila

• **Liburu bat?**

John Grishamen “El Jurado”.


• **Errealala ala Atletika?**

Errealala.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



“ZEIN TTIKIA NAIZEN”
PENTSATU NUEN
ZERUKO IZARRAK
BEGIRATZEAN ...
(Skunk)

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 79 32 34

Kixkor taberna

KIXKOR
taberna

Mitarte, 13 • ARETXABALETA
☎ 79 20 60

Artano taberna

Herriko
plazan
ARTANO

Airorik onena

Herriko plaza, 3 • 79 62 75


Josu harategia

- *Urdaitegia-Gozotegia*
- *kroasantegia*
- *Gertatutako janariak*

Josu Harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETA
Tfnoa: 77 03 08

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Matikua

Matikua
Jatetxea eta taberna

Azatza auzoa • 79 16 68

Baster alde jatetxea



Sasoiko
jakiak
giro one-
nean

Galartza auzoa
☎ 79 24 58
ARETXABALETA

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 79 20 67

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA

◆ Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETA
☎ 79 68 57

Jose Mari bodegoia

Eguneko
menua

Nafarroa, 6
Tfnoa: 79 20 45
Aretxabaleta

**Jose Mari
bodegoia**

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 79 92 01

Basabe jatetxea

*Menu eta
afariak*
**BASABE
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 79 91 84

Dorleta taberna

Dorleta

Beti bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
☎ 79 94 15

Mendiola erretegia



◆ *Bazkari
eta afariak*

*Astelehenetan
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Amets taberna

AMETS

Taberna eta kafetegia

Iparagirre, 4 • 79 01 29
Aretxabaleta

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN


espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa. FAXA: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!